

gastuak

Azken agurraren balioa

Ehorztetxeek eskaintzen dituzten hileta zerbitzuak oso garestiak dira hildakoaren familiarentzat

Bizitzaren legeak jaiotzen den orok hil behar duela dio; eta, ondorioz, guztiok dakigu hainbeste maite izan dugun senide edo hurbileko lagun bat galtzea zer den. Alabaina, denek ez dute jakingo pertsona horri azken agurra emateak zer nolako gastu ekonomikoak eragiten dituen. Hain momentu gogorrek diren horietan, hildakoaren familiak zer motatako hileta zerbitzuak kontratatu erabaki behar izaten du, eta, horretarako, ehorztetxe batera jotzen du.

Ehorzketa etxeek eskaintzen dituzten ohiko zerbitzuak hilkutzak, zerraldoa beilatokira nahiz hilerrira eramateko autoa, lorez osatutako koroa, eta eskalak izaten dira. Aipatutako zerbitzuak bere osotasunean hartuz gero, Gasteizen, batez beste, 806 euro inguru ordaindu beharko du sendiak; Iruñean, 818 euro; Bilbon, 992 euro; eta, azkenik, Donostian, 1.127 euro. Beraz, garbi ikusten da gastu handiei aurre egin behar diola familiak bere ondoan gehiago izango ez duten horri azken agurra eman nahi badiote, behintzat.

Zerbitzu bakoitza banan-banan aztertuz, konturatuko gara ehorztetxe gehienek ez dutela eskelen prezioa zehazten. Izan ere, eskela jartzeko aukeratzeko den egunkariaren arabera, beronen prezioa asko aldatzen da. Honenbestez, ohiko eskela batek zenbait tokitan 277 euro in-

guru balio du, eta beste batzuetan, berriz, 127 eurotako prezioa dauka. Hilkutzaren kasuan ere, alde nabarmenak daude hiri batetik bestera: Alacanten (Espainia) hilkutzak merkeenak 1.022 euro balio du; Gasteizen, berriz, 259 eurokoa da merkeena. Lorez osatutako koroa

arruntenak, 36 euro eta 115 euro bitartean balio du.

Hil-autoa alokatzea

Honetaz gain, zerraldoa dagoen tokitik beilatokira nahiz hilerrira eramateko beharrezkoa den hil-autoa alokatzeak ere di-

rua balio du. Alabaina, aipatutako zerbitzuaren truke, ehorztetxeak jaso behar duen diru kopuruaren inguruan ez dago ezer zehazturik; hau da, kobratzeko sistema bateraturik ez da. Honen ondorioz, zenbait ehorztetxeek denboraren arabera zehazten dute kobratu beharrekia; beste batzuk, egindako kilometro kopurua hartzen dute kontuan; eta, azkenik, badaude gauza biak kontuan hartzen dituztenak ere.


Bestalde, senideek kudeaketa gastuei ere egin behar diete aurre, hala nola, heriotza agiriari. Agiri honek Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko hiriburuetan 3 euro inguru balio duen arren, Iruñean askoz garestiagoa da: 25 euro. Gorpuren ehorzketa ere ordaindu egin behar da; eta Bilbon, adibidez, ehorzketa tasa 124 eurotako da. Hori bai, esan beharra dago Bilboko hilerriak ezer ere ez ordaintzeko aukera ematen duela, baldin eta gorpua komunitate-hilobi batean ehortzi, eta, handik bost urtetara, hilerriari gorpua ezerezteko eskubidea onartzen bazaio.

Gastu ekonomikoak gehitu egin daitezke familiak zerbitzu osagarriak (beilatokia, adibidez) erabiltzeko erabakia hartzen badu. Gorpua errausten bada, ehorzketa gastuak ekiditen dira, baina, era berean, errausketak, besteak beste, zenduen errauskak gordetzeko kutxaren beharra dakar; hots, gastu gehiago. Beraz, garbi asko dago hildako lagunari ohiturari jarraituz behar bezalakoa den azken agurra ematea egun garesti atera daitekeela.



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

••• Lore koroak, hilkutzak edo errauskak gordetzeko ontziak, hil-autoa eta eskalak jartzea izaten dira ohiko gastuak.



Zarautz

Hileta Zerbitzuak


Araba, 35

20800 ZARAUTZ

☎ 943 89 49 37

Faxa: 943 89 49 41

E-mail: zarautz@harrespil.net




Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

Amilaga, 39 - 20570 BERGARA

☎/Faxa: 943 76 12 99 - E-mail: euskalduna@harrespil.net

- HILERRIEN GESTIOA ●
- HILETA ZERBITZU OROKORRAK ●
- ZERBITZU IRAUNKORRAK ●
- KOROAK - ESKELAK ●
- BEILATOKIA ●



Harrespil

Hilerri eta Hileta Zerbitzuak

Peñaflorida, 1B-1. - 20004 DONOSTIA

☎ 943 43 40 62 - Faxa: 943 42 95 29 - E-mail: harrespil@harrespil.net